



Gorenak ziurtagiria erabiltzen duten hamahiru sagardogileen sagardo botilak. GORENAK

## GOI MAILAKO KALITATEA

*Gorenak ziurtagiria duten sagardogileentzat 2015eko uzta ona izan da, eta sagardo ekoizpena ere ona izan da.*

Gorenak ziurtagiria duten sagardogileek sagardo ona ekoitzi dute, Oihana Gainzerain Gorenak ziurtagiriko lehendakariak azpimarratu duenez. «Sagardo batzuek gorputz gehixegoa izango dute, nortasun handia, baina gero beren bukaera oso orekatua izango dute. Sagardo gozoak izango dira, onak, jendeak gozatzeko modukoak».

Euskal Herrian sagar kopuru handia jaso da 2015ean. «Bertako sagar asko egon da, eta ekoizpena ona izan da. Bertako sagar kopuru handia jaso da, eta kalitate handikoa. Homologatutako ekoizleek, hemengo sagarra egiten duten ekoizleek, antzeko ekoizpena mantendu dute azken urteetan, antzeko kopurua. Urte batetik bestera desberdintasun handirik ez izatea lortu dute».

Hemengoak eta kalitate gorenekoak diren sagardoak identifikatzen dituen marka da *Euskal Herriko Sagardo Gorenak*, izenak berak dioen bezala. Go-

renak txapela edo zigilua daraman sagardo botila bakoitzak kalitate kontrolak gainditu, eta nota onak atera ditu Fraisoro laborategiko dastatze akreditatuetan.

Fraisoro laborategiko analitika kontrolatan, besteak beste, sagardoaren pH-a, azidotasuna, azido azetikoak, glukosa, fruktosa, dentsitatea eta burdina neurtzen dituzte. Azterketa fisiko-kimiko horiek egiteaz gain, dastatzea ere kontuan izaten dute. Enac erakundearen (Espainiako Egiaztagiria duen zentro homologatua da Fraisoro laborategia, eta horrek berme ofiziala ematen die hemengo dastatze ebaluazioei.

Dastatzea aztertze eta neurtzeko panel bat daukate, eta sagardoaren koloreari, usainari eta zaporeari erreparatzen diete. «Panel hori ofiziala da, eta dastatzaileak profesionalak dira. Gorenak ziurtagiria duen sagardo guztia aurretik panel horretatik pasatzen da, eta puntuazioa ona daukanak Gorenak markaren txapela eramango du, kalitatearen bermea».

Panel hori kontuan izaten dute sagardo merkaturatzeko garaian. «Aurten, jadanik ikusi ditugu sagardoak Gore-

nak ziurtagiriaren txapelarekin, beste batzuk txapelik gabe... Guk gure erronka gisa hartu dugu Fraisoroko azterketak gainditzen dituzten sagardoei Gorenak ziurtagiriaren txapela'eraman dezaketela, eta horrela bezeroari kalitatea ziurtatzen diogu. Gaur egun, panel hori sektore guztian onartuta dago, eta sektorearen onespina dauka. Beste markek ere erabiltzen dute haien txostenetarako».

Gorenak markaren bidez bezeroak badaki sagardoa goi mailakoa dela. «Bezeroari ziurtatzen diogu bertako sagardoa dela eta kalitate handiko sagardoa dela».

Gorenak ziurtagiria erabiltzen duten sagardogileak hauek dira: Alorrene (Astigarraga), Altzueta (Hernani), Bar-kaiztegi (Martutene, Donostia), Begiristain (Ikaztegieta), Egi-Luze (Errenteria), Gartziategi (Astigarraga), Gaztañaga (Andoain), Gurutzeta (Astigarraga), Isastegi (Aldaba-Txiki, Tolosa), Olaizola (Hernani), Sarasola (Asteasu), Zapiain (Astigarraga) eta Zelaia (Hernani).

Gorenak sagardoaren inguruzko informazio gehiago [www.sagardogorenak.eus](http://www.sagardogorenak.eus) helbidean lor daiteke.